



## **BILBAO ART DISTRICTEN ARTEEN ASTEA HASIKO DA, ETA BERROGEITA HAMAR JARDUERA BAINO GEHIAGO EGONGO DIRA HIRIBILDUKO HAINBAT ESPAZIOTAN**

- **Bilbao Art Districten *Arteen Astearen* zazpigarren edizioa gaur hasiko da Azkuna Zentroan, goizeko 12:00etan. Isaac Cordalen “Liderrak jarraitu” lanaren aurkezpenarekin abiaraziko da.**
- **Maiatzaren 2tik 12ra berrogeita hamar esku-hartze artistiko, bisita gidatu, tailer, jardunaldi, hitzaldi eta kontzertu baino gehiago egongo dira hiriko arte-espazioetan, mundu guztiarentzat doan irekita egongo direnak.**
- ***Arteen Astearen* helburu nagusia izango da ikusizko arteek hiribilduan duten balio ekonomikoa, soziala eta kulturala aldarrikatzea, hausnartzea eta indartzea.**
- **Hauexek izango dira *Arteen Astearen* artelanak hartuko dituzten espazioetako batzuk: Azkuna Zentroa-Bilboko Alhondiga, Bilboko Arte Ederren Museoa, Zabalguneko eraikina, Mesedeetako zubia, Erriberako zubia, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoaren zabaldegia, Areatzako estalpeak, Abandoibarra, Casilda Iturrizar parkea eta Bilboko beste parke batzuk, arte-galeriak, Bilbao Arte, Rekalde Aretoa eta EHUKo Arte Ederren Fakultatea.**
- **Bilboko Udalak sustatzen du Bilbao Art District ekimena, eta eragile kultural eta artistikoekin lankidetzan egiten du. Helburua da hiriko ehun artistiko eta kulturalak garatzen duen jardueraren garrantzia nabarmentzea.**

*Bilbon, 2019ko maiatzaren 2an.*- Hamaika egunez, gaurtik eta maiatzaren 12ra arte, Bilbao Art Districten *Arteen Astearen* esker, hiribilduko ehun artistiko eta kulturalak garatzen duen jardueraren garrantzia nabarmenduko da. Hain zuzen ere, berrogeita hamar esku-hartze artistiko, bisita gidatu, tailer, jardunaldi, hitzaldi eta kontzertu baino gehiago egongo dira hiriko arte-espazioetan.

Gaur hasiko da, 12:00etan, Azkuna Zentroan, Isaac Cordalen “Liderrak jarraitu” lanaren aurkezpenarekin, hain zuzen. Juan Mari Aburto Bilboko alkatea, Nekane



Alonso Kultura zinegotzia eta Xabier Ochandiano Ekonomia Garapena, Merkataritza eta Enplegua Saileko zinegotzia, bai eta Gala Knörr artista eta aipatutako Isaac Cordal izango dira

Bilbao Art Districten *Arteen Aste*ko aurtengo edizioan. MawaTres artista eta Andrea Estankona ikertzailea izango dira komisarioak, eta Bilbao Artek, Azkuna Zentroak, artegaleriek eta -ekoizleek eta EHUko Arte Ederren Fakultateak parte hartuko dute.

Orain arte antolatu diren edizioetatik, 2019. urteko *Arteen Astea* izango da luzeena, eta ekimenaren helburu nagusia izango da ikusizko arteek duten balio ekonomikoa, soziala eta kulturala aldarrikatzea, hausnartzea eta indartzea. Hauexek dira esku-hartze artistikoak ikusgai izango dituzten espazioetako batzuk: Azkuna Zentroa, Bilboko Arte Ederren Museoa, Zabalguneko eraikina, Mesedeetako zubia, Erriberako zubia, Bilboko Itsas Museoaren zabaldegia, Areatzako arkupeak, Abandoibarra, Casilda Iturrizar parkea eta Bilboko beste parke batzuk, arte-galeriak, Bilbao Arte, Rekalde Aretoa eta EHUko Arte Ederretako Fakultatea.

Bilboko Udalak sustatu duen Bilbao Art Districten helburua da hiribildua herritarrak, artistak, arte-galeriak, kultura-eragileak, ekoizpen zentroak, museoak, unibertsitatea, sektoreko profesionalak eta modu batean ala bestean artearen munduarekin zerikusia duen pertsona eta erakunde oro elkarrekintzan aritzeko ingurune bihurtzea.

Bilbao Art District proiektua *Arteen Astea* baino haratago doa; hain zuzen ere, sektore artistikoa mugiarazi nahi du, eta artea urte osoan zehar sortzea, erakustea eta merkaturatzea. Jarraipen-lana da, eta herritar guztiei nahiz kultura eta sormen eragile nahiz profesionaleri irekiko zaie.

### **Isaac Cordal artistaren “Liderrak jarraitu” Azkuna Zentroan**

Aipatutako esku-hartze batzuez gain, maiatzaren 2tik 19ra Azkuna Zentroko Kulturen Atarian ikusgai egongo den proiektua nabarmendu behar dugu:

"Liderrak jarraitu". Isaac Cordal artistaren artelan bat da, eta hiriko biztanleekin sortu da, zeinak aurrien hondakinekin mimetizatzen diren. Hartutako erabakien alboko eraginari begira noraezean dabiltzan negozio-gizon txiki batzuk bizi dira bertan. Erortzean dagoen hiri hori pixkanaka-pixkanaka utzi dugu, naturarantz aldentzen ginelarik.

Eskulturek boterearekin, burokraziarekin, politikarekin, patriarkatuarekin, bankarekin eta abarrekin zerikusia duen gizarte-estereotipo bat irudikatzen dute. Beraz, etengabeko gainbeheran dagoen gizartearen ikonoa dira eskulturak.



Isaac Cordal (1974) Galiziako artista bat da, eta Bilbon eta Bruselan egiten du lan. Artelanetan hiri-inguruko eskulturak eta argazkigintza uztartzen ditu. “*Liderrak jarraitu*” Cordal-ek “*Cement Eclipses*” sortutako obraren esku-hartze bat da, eta haren eskulturak kalean aurkitzen dituzten pertsonen irudimena estimulatzea du xede.

Proiektua etengabeko egite-prozesuan dago. 2006. urtean abiarazi zen, eta orain arte esku-hartzeak egin dira Berlin, Londres, Brusela, New York, Bogota edo Amsterdam hirietan, besteak beste.

### **Berrogeita hamar jarduera baino gehiago**

Aurtengo egitaraua oinarritu egingo da balio sozial, kultural eta ekonomikoek artearen munduan duten eraginari buruzko garrantziaren eta islaren hausnarketan. Egitarauko esku-hartze hauek nabarmendu behar dira:

- **“Zertan pentsatzen dute artistek? Hegoalde-hegoalde-iparralde elkarrizketak munduari bira egiteko”** Esku-hartze artistiko honen bitartez proiektua nazioartekotu nahi da eta herritarrengana hurbildu Mesedeetako eta Erriberako zubietan ikusgai egongo den erakusketa grafiko batean, bai eta maiatzaren 8an Rekalde Aretoan egingo diren elkarrizketetan ere.
- **“LUTITEKA”** Tunipanea artistak sortutako ehun musika-tresna experimental baino gehiagok osatzen duten erakusketa da. Horietako asko Bilboko kaleetan aurkitutako elementu birziklatuekin sortu dira. Balio handia du; izan ere, ikusleek musika-tresnak hartu ahal izango dituzte edo sormen-tailer batean parte hartu. Bestalde, beste artista batzuek musika-konposizioak joko dituzte zuzenean musika-tresna horien bitartez.
- Ildo horretatik, **“Komisario eta artisten topaketak”** proposatuko da, Bilbao Art District eta BilbaoArteren arteko lankidetzan. Bilboko sareko artistak profesionalki garatzen laguntzeko jardunaldi batzuk izango dira, eta dosierrak aurkeztu eta estudioak bisitatuko dira. Horrez gain, aurkezpen publiko bat antolatuko da, non edizio honetako gaiaren gainean hitz egingo den: praktika artistikoek sortzen dituzten balioak komisarioen praktikaren ikuspegitik.
- Beste alde batetik, Azkuna Zentroa-Bilboko Alhondigarekin lankidetzan gauzatuko diren **“Beste modu batean pentsatzeko testuinguruak sortu behar ditugu”** jardunaldietan praktika artistikoen balioetan pentsatzeko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko jardunaldi bat izango dugu.



### **Bisita gidatuak hiriko parkeetara**

Solasparkea eta Herritar Ekologikoak ekimeneak herritarrei proposamen bat luzatu nahi diete: ibilbide eta ekintza kolektiboak Casilda Iturrizar Parkeko materialitate ezberdinekin, eta bisita gidatuak bertoko eta kanpoko zuhaitzetatik, hurrenez hurren.

- **“Solasparkea”** ekimenean, bi interpretazio-ibilbide proposatzen dira, eta mundu guztiak parte hartu ahal izango du Saioa Olmo eta Raquel Meyers artisten laguntzarekin. Bertan, Casilda Iturrizar parkeko elementuekin mintzatuko gara modu alternatiboan, ez beti egin ohi dugun bezala. Ibilbideak maiatzaren 4an eta 11n egingo dira.
- **“Herritar Ekologikoak”** ekimenean, berriz, ibilbide gidatu batzuk egingo dira ingurumenari lotutako esku-hartze baten bitartez, eta subjektua lotu eta identifikatu nahi da kanpoko zuhaitzekin. Kanpoko espezieak identifikatuko dira, eta “NAN” bat egingo zaie. Esku-hartzean parte hartzen duten pertsonen txartela eraman ahal izango dute “babesaren” sinbolo gisa.

### **Arte galerietara ikusle berriak erakartzea**

Bilboko galerietara ikusle eta bisitari berriak hurbil daitezten, Galeriaren Eguna antolatuko da maiatzaren 11n. Egun horretan, bisita gidatuak egongo dira honako galeria hauetan: LaTaller, Espacio Marzana, SC Gallery, Aldama Fabre Gallery, Juan Manuel Lumbreras galeria, Vanguardia galeria, MH Art Gallery eta Aire galeria.

Programazio horri guztiari, halaber, hiriko eragileekin egingo diren jarduera bereziak gehitu beharko zaizkio Vanguardia galerian, saria jaso duen Izaro dokumentala proiektatuko da maiatzaren 17an, eta, ondoren, solasaldia izango dugu Txuspo Poyo egilearekin Era berean, hitzaldiak antolatuko dira artista eta komisarioekin, honako hauekin, besteak beste: Basque Center for Applied Mathematics delakoko ikertzailea Spazio Ranieri-n (maiatzaren 10a), Usua Zumeta artista grabatzailea Juan Manuel Lumbreras galerian (maiatzaren 9a), Pako Pimienta Argazkigintza Garaikideko Zentroan (maiatzaren 10a) edo Jesús Alcaide komisarioa eta Eduardo Hurtado artista Aldama Fabre Gallery delakoan (maiatzaren 11).

### **UPV/EHU-ko ikasleek sortutako sorkuntza artistikoak**



**UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatea** aurten ere eraginkortasunez lankidetzan arituko da Bilbao Art District eta bere *Arteen Astearekin*. Beste edizio batzuetan bezala, Arte Ederren Fakultateko ikasleek esku-hartze artistiko ezberdinak egingo dituzte hiriko hainbat espaziotan, bestek beste, Containers Aurtenetxea eta Bilboko Itsasadarra Itsas Museoaren lankidetzari esker egin dena. Bestalde, fakultateko ikasleek esku-hartze artistikoak gauzatuko dituzte Bizkaia Aretoan.

### **Azken esku-hartzea Areatzako estalpeetan**

Amaitzeko, maiatzaren 11ko arratsaldean, Areatzako estalpeetan, Fat Combo eta Caostica kolektibo artistikoen ikus-entzunezko esku-hartze bat egingo dute “Hiriko Arte Primitibista” izenburua duen instalazio batean. Espazio horretan bertan, grafitiak margotuko dira zuzenean. Hori guztia VJ Anisakis artistaren zuzeneko musikarekin eta ikusizko materialekin girotuko da. Ekitaldia 18:00etatik 23:00etara egingo da.

**Bilbao Art Districten “Arteen Asteari” buruzko informazio guztia eta programazio osoa honako helbidean: [www.bilbaoartdistrict.com](http://www.bilbaoartdistrict.com)**